



Jon Mintegiaga aske utziko dute larunbatean

IBARRA ▶ Preso politikoak
bost urte egin ditu espetxean,
«ETari laguntzea» leporatu ostean

ONGIETORRIA ▶ Elkartasun
Egunaren baitan egingo diote
Ibarrako Plazan, larunbatean ▶ 6

TOLOSA ▶

Ibilgailuen erabilera, kezkatzeko modukoa

Mugikortasun
Astean, azterketak
egin dituzte ▶ 3

BALIARRAIN ▶



N. URBIZU

Ikuspegi ederren bila Baliarrain aldera

San Juan iturrian
atsedenleku
polit bat dago ▶ 5



Zeinu hizkuntza, mugak gainditzeko beharrezko tresna

TOLOSA ▶ Duela bost urte hasi zen Gainditzen Tolosaldea eta Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak Tolosan zeinu hizkuntza ikastaroa antolatzen. Bost urte hauetan 450 ikasle inguru izan dituzte. Datorren astelehenean hasiko da ikasturte berria Inmakulada

ikastetxean, eta denera, 120 ordu izango ditu ikastaroak. Julian Rodriguez tolosarrak eman ohi ditu eskolak. Berak diotenaren arabera, «ez da zaila zeinu hizkuntza ikastea». Pertsona gorren egungo egoeraz, lan handia dagoela oraindik egiteko dio. 16. ▶ 2

hitza
argazki
lehiaketa

eman botoa

BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Telefonoz: 943 65 56 95

Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak, IRAILAK 30 igandeko egunkarian

1 2 3 4
5 6 7 8

ZOKKETA APARTAK

BOTOEMAILE
guztien artean HITZAREN
mobila eta mendiko
gerriko poltsa zokkatuko
dira

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶ JON ALTUNA

Malagara hegaldia



Asteburu luze eta gogorra izan da. Hegazkinean bueltan gatzoz azkenik, mila arazoren ostean lortu dugu etxerako bidaia hasia. Badirudi aste oso bat pasa dela ostiralean lagunak agurtu nituenetik. Asteburuko planak egiten ari ziren. Beste lagun batzuk, berriz, ezkontza zuten eta hauek inoiz baino gehiago printzesen moduan joango ziren bertara. Pena ezin ikustea!

Malagako bidaiarako nobedade handi

bat genuen, gure autobus «maitea» alde batera utzi eta hegazkinez egingo genuen. Baina gure lehen hegazkin esperientzia ez da oso ona izan, izan ere, Bilbora iritsi eta zer esango eta bi orduko atzerapena zuela hegaldiak. Han egon ginen, batzuk kartetan jolasten, besteak kafetegian zerbait hartzen... Athletikoko jokalariekin ere topo egin genuen, beraiekin hitz egiten egon ginen baino hauek ez zuten inongo arazorik izan hegaldiarekin.

Azkenean hegaldia atera zen eta Malagara iritsi ginen. Euskal Herriko euri eta hodeietatik, Andaluziako eguzki eta berora pasa ginen. Hotelera joan eta ordu pare bat libre genituela eta Mala-

gatik buelta bat eman genuen. Hiri polita irudituz zitaigun, oporretarako egokia, oraindik ere atzerritar ugari zebilen bertan.

Honela, igandea iritsi zen, partida eguna. Gosalduta ondoren paseoa ateratu ginen, ondoren partidaren inguruan hitz egin genuen. Partidarainoko ordu hilak, kartetan jolasten eman genituen. Bazkalduta, siesta eta partidura. La Rosaleda zelaira 16:30ean iritsi ginen. Hutsa zegoen baina pixkanaka betetzen joan zen, partiduan 15.000 pertsona izan ziren, gure zelaira berriz 2.000 inguru joaten dira, alde nabaria. Andaluzian futbola odolean daramate, giro aparta zegoen, gutxi batzuen ahotik entzun genituen

euskaldunen aurkako hain famatuak diren irainak baina orokorrean giro oso ona izan zen. Partidua galdu egin genuen, ez ginen gaizki aritu, baina galdu.

Partidu ostean hegaldia berehala gurea eta, Malagako kaleetatik poliziak eskolatuta joan ginen pelikuletan bezala. Harrigarria kotxe guztiek alde batera nola egiten zuten eta denen artetik gure autobusa nola pasatzen zen. Aireportura iritsi eta zer esango eta hegaldia bertan behera geratzen zela, ezin genuen etxera bueltatu, beste gau bat pasa behar genuen bertan. Ezin genuen sinez! Partidua galdu, hegaldia galdu, egun bat gehiago pasa behar Malagan... ez da oso asteburu ona izan. Behintzat, hainbeste buruhausteren ondoren iritsi gara etxera eta ez da gutxi. Umorez hartu behar gertatu dena. Hala ere, hurrengo asteburua hobe izango ote da!

GIZARTEA ▶

Komunikazioaren mugak gainditzen

Datorren astelehenean hasiko da zeinu hizkuntza ikastaroa, Gainditzen Pertsona Gorren Elkarteak antolatuta

IÑIGO TERRADILLOS

Ehunka traba gainditu behar izaten dituzte jakin edo espero duguna baino herritar gehiagok eguneroko eguneroko. Askotan gertatzen den bezala, ordea, kasu zehatzak gertutik ikusi arte, ez gara konturatzeko. Pertsona gorrek izan daitezke honen adibide, komunikatzea bezain sinplea eta garrantzitsua den ekintza gainditu beharreko eguneroko oztipo edo erronka bihurtzen baita beraitzat. Ziurrenik munduko herritar guztiok zeinu hizkuntza jakiteak konponduko luke arazoa, baina «bete ezin daitekeen ametsa» dela, hori uste du Gainditzen Tolosaldea eta Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak.

Ahalik eta jende gehiagora iristeko helburuz 2002. urtetik ikastaroak antolatzen ditu elkarte honek. Hain zuzen ere, datorren astelehenean hasiko da zeinu hizkuntza ikastaroa, Tolosaldea Inmakulada ikastetxean. Hala, urriaren 1etik 2008ko maiatzaren 29ra iraungo du, denera, 120 ordu betez. Ikastaroa egin nahi dutenek 2 orduetegi izango dituzte aurrerant, bata 16:45etik 18:45era izango da astelehenean eta asteazkenetan, eta bestea 19:00etatik 21:00etara izango da asteazkenetan eta ostegunetan. Ikastaroa amaitzean Madridgo CNS Eren baliozkotasu-

na duen (bere barne Euskadiko Pertsona Gorren Federazioa) ziurtagiria eskuratuko dute ikasleek. Gainera, urtean zehar eskaintzen duten ikastaroaz gain, udan ikastaro trinkoa egiteko aukera ere badago. Lehendabizikoa maila gainditu eta gero, jarraitzeko aukera ere izaten da, kurtsoak 3 urtekoak izaten baitira, 360 ordu eginez orotara.

Duela bost urte zeinu hizkuntza ikastaroa abian jarri zutenetik, 450 ikasle inguru izan dituztela diote Gainditzen elkarteak arduradunek. 45 ikaslerekin hasi ziren 2002an, eta ordutik handituz joan da kopuru hori, iaz esaterako 100 ikasle aritu ziren zeinu hizkuntza ikasten. Aurtengoarekin hasi nahi duenak edo gaiaren inguruko zailtasunak argitu nahi dituenak 943 670381 edota 666 637158 telefono zenbakietara hots egin besterik ez du egin behar.

Gormutuen familian

Zeinu hizkuntza ikastaroaz gain, Gainditzen elkarteak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar. Hala, bihar *Nire esperientzia gorren familian* hitzaldia eskainiko du Jose Martin Saenzek Kultur Etxean, 19:30ean. Azarorako ere egitarau oparoa antolatuta dute, antzerkia, zinema eta hitzaldiekin, besteak beste.



Udako ikastaro trinkoan parte hartu zuten ikasleak, irteera batean. HITZA

JULIAN RODRIGUEZ ▶ ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROKO IRAKASLEA

«Hutsune handiak ditugu oraindik eta lan handia dugu egiteko»

Gainditzen Tolosaldea eta Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak kidea da Julian Rodriguez (Donostia, 1963). Egund, Tolosaldea bizi da eta gorra da. Berarekin eta egun Villabona bizi den Cruz Sanchez (Zaragoza, 1973) interpretearekin izan gara antolatuta duten zeinu hizkuntza ikastaroaren nondik norakoak jakiteko.

5 urteetan 450 ikasle inguru izan dituzue. Harrera ona, beraz.

Bai, baina hasieran zailtasun batzuk ere izan genituen jendeak ez baitzuen gure elkarteaz egutzen. Egund, ordea, oso ondo funtzionatzen du ikastaro honek.



I. GARCIA

Ikastaroak herritar guztielirekiak dira, ezta?

Bai. Nagusitzen direnak irakasleak, pedagogoak eta psikologoak dira, baina horietaz gain, denetarik izaten dugu.

Nola banatzen duzue ikastaroa?

Aurkezpenak egin eta gero, interprete batek gormutuen egungo egoeraren berri ematen du, eta gero ikastaroa nola izango den azaltzen du. Hortik aurrera keinuekin hasten gara komunikatzen, hori baita guretzat garrantzitsua.

Zaila al da ikastea?

Ez. Praktika eta esfortzuekin egin daitezke zerbait da beste hizkuntzak bezala.

Guztiok zeinu hizkuntza jakingo bagenu bizitza errazagoa izango litzateke zuentzat. Bai, baina hori bete ezin daitezke ametsa da. Gauza asko daude egiteko oraindik. ◀

TOLOSA ▶

Euskarazko webguneei diru laguntzak emango dizkie

Egoitza sozial edo fiskala Tolosan dutenei emango die dirua Udalak

E. EZEIZA

Jendeari interesgarri gerta dakiokkeen informazioa eta edukia euskaraz hedatu ahal izateko helburuarekin, Tolosako Udalak zenbait diru laguntza emango dizkie euskarazko webguneei. Eskaera inprimakia bete eta Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailean utzi beharko da urriaren 30a baino lehen. Inprimakiaz gain, beste agiri hauek ere aurkeztu beharko dira: gastuen jatorrizko ziurtagiria edo fotokopia; diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia eta diru-kontuen balantzea. Oraingoz, 1.000 euroko laguntza banatu dute.

Diru laguntza hauek, kultur, aisialdi, enpresa, merkataritza eta ostalaritza bezalako alorretara bideratuko dira. Honekin lortu nahi dena da, publiko zabalari interesgarri gertatzen zaion neurrian, erakunde eskatzaileari gastuak murriztea. Laguntzak eskatu ahal izango dituzte, aipatutako esparruetan proiektu edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei, egoitza sozial eta fiskala Tolosan badute.

Bete beharreko baldintzak ondorengoak izango dira: edukia gutxienez, oso-oso-rik euskaraz izatea. Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna bermatzea. Webgunea elikatzea, hau da, bisita kopurua, kalitatea zein erabilgarritasuna eguneratzea. Eduki horien barruan legeetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du. Webgunea egina izan beharko da diru eskaera egiterako, eta eskaera orrian helbidea jarri beharko da, Udalak ikuskatu ahal izateko.

Udalak luzatutako agiriaren arabera, ezingo dute diru laguntza eskatu, webgune pertsonalek; irakaskuntza erakundeak lotutako guneek; eduki iraingarria edota pertsonen aurkako dutenek...

GIZARTEA ▶

ESTI EZEIZA

Egun hauetan Mugikortasun iraunkorraren gaiari lotutako hainbat ekintza egiten ari dira Tolosan eta inguruko herrietan. Bioetanolari buruzko hitzaldia, banderolak ipintzea, zine emanaldia, bigarren eskuko materialen azoka... egin zituzten joan den astean, eta gai honen inguruko egitasmoak urriaren 11ra arte luzatuko dira. Gaur, esaterako, bizikleten txekoia egingo dute 16:00etan Irurako plazan. Herriarrek beraien bi gurpiletako ibilgailuak eraman ahal izango dituzte eta hauei azterketa egingo diete.

Aste guztian zehar bide hezkuntza lantzeko antzerki emanaldiak ari dira eskaintzen ikastetxeetan. Bestalde, garraio publikoaren ordutegia jasotzen duten kartelak ipiniko dituzte hiriko paretetan. Ekin-tza guzti hauez gain, gidatze eraginkorrari buruzko doako ikastaroa dago goizez, 09:00etatik 12:00etara.

Aste honetako jardunaldiez gain, urriaren 10ean, Tolosako Kultur Etxean eta urriaren 11n, osteguna, Anoetako udaletxean gidatze eraginkorrari buruzko ikastaroak izango dira. Lau orduko iraupena dute: ordu bete praktikoa nola gidatzen dugun ikusteko, eta bi teoriko, erregai gutxiago kontsumituz eta ibilgailuaren bizitza luzatuz gidatzen ikasteko. Beste bat praktikoa, gidatzeko modu berriaren emaitzak ikusteko. Tolosakoa 17:00etan hasiko da eta Anoetakoa 16:00etan, eta doan izango dira.

«Ibilgailu pribatuen erabilera datuak kezkagarriak dira»

Mugikortasun Astearen baitan zenbait azterketa egin dituzte ikasleek; gaur bizikleta txekoia egingo dute Iruran



Tolosako ikastetxeetako ikasleek, mugikortasunaren inguruko zenbait azterketa egin dituzte. HITZA

5.000 ibilgailuk zeharkatzen dute hiria ordu eta erdian

Aurtengo Mugikortasun Iraunkorraren Astean, herritarrei gai honen inguruko arazoak ezagutarazteko asmoz ekintza ezberdinak antolatu dituzte eskualdean: bioerretzaileei buruzko hitzaldia, bizikleta festa, zine saioa, bigarren eskuko materialen merkatua...

Egun hauetan arazo honen inguruko datuak argitaratu dira. Bertan agertutako ibilgailu pribatuaren erabilpenari buruzko datuak esate baterako. Hala, Tokiko Agenda 21eko arduradunen ustetan, bildutako datuak «ez dira batere itxaropentsuak», urte batetik bestera kopuruek gora egiten baitute. Honenbestez, egoera honi irtenbide bat bilatu behar zaiola eta horretarako guztien parte-hartzea ezinbestekoa dela uste dute antolatzaileek.

Tolosako Udalak mugikortasun iraunkorraren aldeko «apustua» egin du, eta orain

apustuaren zein puntutan dauden jakiteko momentuan daude. Horren adierazle gisa, Tolosan zehar egunero mugitzen den ibilgailu kopurua hartu dute. Orixe, Laskorain eta Hirukide-Eskolapioen ikastetxeen artean egindako zozketan, azken hauei egokitu zitzairen lan horren ardura, hurrengo urteetan beste ikastetxeekin ere egingo dute. Tolosako puntu esanguratsuenetan banaturik, joan den ostiralean, goiz osoan zehar bertatik pasatzen ziren ibilgailu mota eta kopuruari buruzko datuak jaso zituzten. Guztira 50 ikasle izan ziren parte hartu zutenak, beraien ikasleen inplikazioarekin eta Zuloaga Txiki Ingurumen Eskolatik koordinatuta.

Egun honetan jasotako datuen arabera, goizeko lehen orduan lau biribilgunetatik igaro ziren ibilgailu kopurua ia 500ekoa izan zen. Ibarra-ko sa-



Ordu eta erdian zenbat ibilgailu igarotzen diren neurtu dute. HITZA

rrerakoa izan zelarik, auto gehien igaro zirena: 2.186.

Aide Zaharrera, Nafarroako zubitik 165 ibilgailu sartu ziren. Bigarren ilaran ordu eta erdian, 94 ibilgailu utzi zituzten. Horietatik 28, Zezen Plaza aurrean. Zama laneko guneetan, denera 127 ibilgailu geratu ziren, hemen ere, gehienak

Zezen Plaza inguruan, 49 hain zuzen ere. Azkenik, Beotibar frontoia aurrealdean, bidegorriaren erabilpena neurtu zuten, eta denbora epe horretan, 61 bizikleta igaro ziren.

Txosten honetan bildutako datuak, mugikortasunaren inguruko balantzea egiteko erabiliko ditu Udalak. ◀

VILLABONA ▶ MUSIKA

«Abesten ikasteaz gain, abestuz gozatzeko» aukera

«Abestea gustuko» duten 5 eta 15 urte bitartekoek Eresargi Txiki abesbatzan izena eman ahal izango dute bihar eta etzi



Eresargi Txiki abesbatzako kideak kontzertu batean. HITZA

IMANOL GARCIA

Villabonako Eresargi Txiki abesbatzak aurki hasiko du bere ikasturtea. Horretarako jarri dituzte bihar eta etziko egunak izena emateko. Arantxi Padilla zuzendariak azaltzen duenez, Eresargi Txiki taldean «abesten ikasteaz gain, abestuz gozatzeko» da beraien helburua.

Padillak zehazten duenez, talde batean parte-hartzeari ere garrantzia handia ematen diote. «Abesbatzara abestera etortzen dira, noski, baina baita ere lantzen dugu haurren arteko elkarbizitza». Horrela, udaberri aldean asteburu pasa bat antolatzen dute.

5 urtetik hasi eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek eman dezakete izena. Gero bi talde egiten dira, bata 5-8 urte bitartekoekin eta bestea 9-15 urte

bitartekoekin. Gaztetoenek astean behin, ostegunetan, elkartuko dira, eta zaharrenek taldea astean bitan, ostegun eta ostiraletan. Azken hauek ahots ezberdinetan banatzen dituzte eta ostegunetan taldeka aritzen dira. Ostiraletan denak batera egoten dira entseguetan.

Ahotsa ezagutzeko

Eresargi Txiki abesbatzan izena emateko «abestea gustatzea» da betebeharrak. Hau da, ez da ahots on bat edo musikarekiko belarri ona izan beharrik. «Gurasoak etortzen zaizkigu ea beraien haurrek izena eman dezaketen galdetzeraz, ahots txarra dutela edo belarri txarra dutela esanez», dio Padillak. «Edozein etor daiteke. Belarria eta ahotsa denborarekin egiten dira. Haurrek

denborarekin aldaketa handia egiten dute».

Hain justu, abesbatzaren klaseen norabidea hortik doa, «bakoitzak bere ahotsa ezagutzeko». Haurrek bere gorputza ezagutzen joaten dira: nola arnastu, ahoskordak nola zaindu, ahotsa nola erabili...».

Horretarako erabiltzen dituzten errepertorioak eta baliabideak antzak dira. «Estilo ezberdinak landuz aritzen gara», dio abesbatzako zuzendariak. «Jolasak egiten ditugu eta ikusi dugu abestiek batera koreografiak sartzea ere asko gustatzen zaiela haurrei».

Izena eman nahi dutenek, beraz, bihar eta etzi dute horretarako aukera. Udaletxeko gela balioanitzen —liburutegiaren gainean dagoena— egin daiteke, ordutegi honetan: bihar 17:00etatik 19:00etara eta etzi 19:15etik 20:30era.

ANOETA ▶

Ikastaroak egiteko aukera haurrentzat

Haurrentzako ikastaroak antolatu dituzte Anoetan, hain zuzen, marrazketa, antzerkia eta plastika. LH1etik aurrerako ikasleek izango dute izena emateko aukera. Urriaren 8tik abenduaren 21era izango dira ikastaroak eta gero jarraitzeko aukera egongo da. Ordutegi dagokionez, antzerkia astelehenetan izango da, 17:15etik 18:45era kiroldegian. Marrazketa eta plastikako ordutegiak zehazteko bilera bat egingo dute izena ematen dutenekin, eta klaseak Hozpel kaleko udal lokalean izango dira, astean behin eta ordu eta erdi. Prezioa 30 eurokoa da eta izena emateko azken eguna hilaren 28an izango da.

IRURA ▶

Jaietako bikoteen bazkarirako izen-ematea zabalik

Irurako jaien baitan hilaren 30ean bikoteen bazkarira joan nahi duenak izena eman behar du Zaharren Biltokian edo udaletxean hilaren 28a baino lehen. Gainera, haurzaintza zerbitzua dago 3 urtetik 10 urtera arteko haurrentzako, 14:30etik 18:30era. Horretarako haurren izena eta adina zehaztu behar da izena ematerakoan.

IRURA-HERNIALDE ▶

Ipuin kontaketa egingo ditu Idoia Sanchezek

Galtzaundi Euskara Taldeak ipuin kontaketa saioak antolatu ditu. Idoia Sanchez izango da ipuin kontalaria eta Iruran eta Hernialden egingo ditu emanaldiak, biak bihar. Iruran 17:00etan izango da, liburutegian. Saio horren ondoren Hernialden egingo du ipuin kontaketa. 18:30ean izango da, udaletxeko pleno aretoan.

ZIZURKIL ▶



Mari Jose Altuna jaso duen bizikletarekin. HITZA

Mari Jose Altunak eraman du bizikleta

Neska txirrindularien Zizurkilgo Sari Nagusia dela eta, Orbea bizikleta bat zozketatu zuten. Zozketa horren irabazlea eta, beraz, bizikleta eraman duena Mari Jose Altuna tolosarra izan da.

Higiezin Agentzia
Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Alegi. Eraikuntza berria, 13 ebebitzita

2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin.

Altzo. Salgai eraberritzeko ebea, 3 ebebitzitarako, lursailarekin.

Altzo. 75m²ko bi solairuko borda eta 10.000 m²ko lursaila.

Anoeta. Harrizko baserrian

90m²ko ebebitzita salgai. Berritzeko.

Betelu. Hiru logelako ebebitzita.

Egongela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariekin. Egoera ezin hobean.

Ibarra. Ebebitzita, 3 logela, sukaldea

eta berogailua. Berokuntza eta igogailuarekin.

Ibarra. Bi logelako ebebitzita.

Eraberritua. 258.435 euro.

Irura. Ebebitzita atikoan. Hiru logelako. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako ebebitzita, igogailuarekin eta guztiz berritua.

Tolosa. Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gelako. Eraberritua.

Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko ebe atxikia, garaje eta lursailarekin.

297.000 euro.

Tolosa. Errementari kalean, 62 m²ko ebebitzita 5. solairuan, hiru logelako. Garajea aukerazkoa.

Tolosa. Berazubini, eraberrituriko ebebitzita, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.

Tolosa. Bialaren ondoan 50 m²ko eraberritutako ebebitzita salgai. Garaje zabalarekin.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, etxebizitzak 1. eta 4. solairuan.

Tolosa. Larramendin, pisu altua, igogailuarekin, egoera bikainean, garajea eta trastelekuarekin.

Tolosa. Belaten, garaje ibiak 25 m²tik hasita.

Tolosa. Gernikako Arbolan, merkataritza lokalak. Solairu bakoitza 35 m²koa.

Tolosaldea. Baserria 10.000 m²ko lursailarekin, egoera onean.

MENDI IBILALDIAK (V) ▶

NEREA URBIZU

Baliarrain Gipuzkoako herririk txikiena da; mendian gora dago herrixka hau, Ibiur presa ezkerrean duela. Herrira iristeko seinaleak oso argi egon ez arren (herriren izena eta norabidea lantegi baten barruan dago, belarria egin behar dela dioen kartela oraindik dago...), txoko politak daude Baliarrainen. San Juan iturria ezagutzeko aukera dago, beste gauza askoren artean.

San Juan iturria herritik 3 kilometro ingurura dago, eta ibilbide guztia 3 ordutan erraz eta lasai egin daiteke.

Baliarraingo herrigunetik San Juan iturriaraino asfaltozko pista batetik aterako gara, eta Lopetedi dorretxearen aurretik igaroko gara. Beraz, Zartagi jatexearen eta plazako belardiaren artean igaro behar da. Ezkerreko aldean panoramika ederra izango dugu: Txindoki mendia eta Gaintzako hostozabalena basoa.

Ezkerraldera dagoen lehenengo bihurgune itxian, goranzko aldapa txikiko pista bat hartuko dugu. 200 metro inguru aurrerago (dagoeneko herrigunetik kanpo), duela gutxi berregindako bide estu bat hartuko dugu, eskuinerantz, Aritzmendi baserrira doana. Hortik bi larreen tartetik doan zanga moduko gurdi-bide bat zeharkatu beharko dugu, Abaliabarrena baserrira heltzeko. Eta Abaliabarrena baserritik gorantz doan errepidea hartuko dugu, San Juan iturriaraino heldu arte.

Atsedenekua San Juanen

San Juan Iturrian bertan atsedeneku eder bat dago: Txindoki ederki asko ikusten da, eta baita Aralarko hainbat mendi ere. Haurrentzako kullunkak, jateko mahaia, barbakoa, iturria bera, eta ikuspegi zoragarriak daude bertatik, herritik 3 bat kilometroa.

Itzulia asfaltuzko errepidetik egingo dugu, 180 gradu dituen lehenengo birigune itxira iritsi arte eta hortik pagadi heldu bat zeharkatuko duen basabide bat aterako da. 100 metro inguru aurrerago, bideak jais-tea egingo du. Eltzorrotz base-riaren inguruan pagoak eta haritzak nabarmenduko dira. Urrutira, Asnarretako artea ikus dezakegu, bakarti kokatuta zabalune batean.

Ibilbidea galtzeko arriskurik gabe Legazpia-Baliarrain errepide aldera zuzenduko da, Bidearte baserriaren inguruan eta, metro batzuk aurrerago, Baliarrainera helduko gara, bide bertan bukatuz.



San Juan iturrian atsedeneku bat dago: haurrentzako jolasak, eserlekuak eta abar. N. URBIZU

Baliarraindik gora, atsedena eta ohorezko ikuspegia

San Juan iturrira iristean Txindoki inguruko mendiak ikusten dira, esaterako, bazkaldu bitartean



San Juan iturritik Txindoki ikusten da. N. URBIZU

TOLOSA ▶

Yogari buruzko hitzaldia gaur Kultur Etxean

Sanatana Dharma Yoga elkarteak hitzaldia antolatu du gaurko, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Bertan jorratuko duten gaia *Yogaren bidezko osasun fisikoa eta mentala* izango da, eta osasuna, gaixotasunak eta yogaren eragina izango dituzte hizpide, besteak beste. Bharat Martin meditazio eta yoga irakaslea eta Sergio Arrospide yoga irakaslea ariko dira hizlari lanetan.

TOLOSA ▶

Kilometroetara joateko autobusa antolatu dute

Galtzaundi Euskara taldeak Bergaran urriaren 7an ospatuko den Gipuzkoako Ikastolen festara Kilometroetara, joateko autobusak antolatu ditu. Izen-ematea Galtzaundiren egoitzan eman daiteke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBILALDIA ▶

Baliarrain inguruetako ibilaldia da, eta San Juan iturria ezagutu daiteke honela.

BALIARRAINGO BIDEETAN

Distantsia. 4 kilometro eta erdi pasabto. **Iraupena.**

Bi ordu eta erdi inguru.

Zailtasuna. Ertainekoa.

Ibilbidearen izena.

Baliarraingo mendiak, SL-GI 14, hain zuzen.

Deskribapena.

Baliarraingo plazatik abiatuta, gora aldera hartu behar da eta handik 3 kilometro ingurura San Juan iturria dago. Bertan indarberritu egin daiteke, ura eta atsedeen hartzeko lekua baitago. San Juan iturria 465 metroko altueran dago. Herrira jaitsi daiteke ondoren, galtzeko arriskurik ez duen bide batetik. Dena dela, markak behar bezala daude margotuta (txuriz eta berdez).

IBARRA ▶ POLITIKA

Ion Mintegiaga preso politikoa askatuko dute hilaren 29an

Bost urte espetxean egon ondoren, larunbatean 'Minde'ri ongietorria egingo diote Elkartasun Egunaren barnean



Iragan urteko Elkartasun Egunean bazkaria egin bazen ere, aurten herri afaria egingo da Minderekin. HITZA

ASIER IMAZ

Ion Mintegiaga Oiarbide, *Minde*, preso politikoa ibartarra hilaren 29an, larunbatean, askatuko dute. Ibarren ongietorri ekitaldiaz gain, Elkartasun Eguna 07 ere antolatuko dute egun horretarako.

Minde 2002ko urriaren 1ean atxilotu zuen Guardia Zibilak Bilbon (Bizkaia). 2006ean egin-

dako epaiketan, «ETari laguntzea» leporatu zitzaion, bost urteko kartzela zigorra ezarri ziolarik Espainiako Auzitegi Nazionalak. Urte hauetan, Euskal Herritik hurrun, hiru espetxetan («duki dute»); Soto del Real (Madril), Alcalá Meco (Madril) eta gaur egun aurkitzen den Mansilla de los Mulosen (Leon, Espainia) dagoen espetxean. Elkartasun Eguna antolatzen

ari direnek azaldu dutenez, «*Mindere* bezala, larunbatean elkartasun guztia eskaini nahi diegu euskal preso politikoa eta iheslarietara, bereziki herriaren eta eskualdean ditugunei».

Elkartasun Eguna 07

Urteroko moduan, aurten ere Elkartasun Eguna antolatuko dute Ibarren, «iheslari eta pre-

EGITARAUA ▶

IRAILAK 29, LARUNBATA

11:00. Hamaiketako Sendi Ekintzan.

Ondoren. Kalejira eta Poteoa herriko kaleetan zehar dultzaineroek alaiturik.

Eguerdian. Koadrilen bazkaria.

16:00. Mus Txapelketa herriko plazan.

19:30. *Minderen* ongietorria Ibarreko plazan.

Ondoren. Herri afaria plazan. 23:30. Kontzertua dohainik Gaztebean, Gozategi taldea eta DJ Axeri-Zaharraren eskutik.

so politikoei elkartasuna adierazteko». Egun guztian zehar ekitaldi ugari egongo dira kaleetan, nahiz eta *Minderen* ongietorria izango den ospakizunaren ardatza. Goizean, suziriak jaurtiko dituzte egunari hasiera eman eta *Minderen* asparen berri emateko. Aipatu behar da, Ion Mintegiaga Ibarreko gerturatzeko ari dena, herriarrik jakinaren gainean jartzeko, 20 suziri jaurtiko dituztela, plazara elkartzeko deialdia egin asmoz.

Egunari musika dultzaineroek, trikitilariak, Gozategi taldeak eta DJ Axeri-Zaharrak jarriko diote. Arratsaldean, 16:00etan hain zuzen ere, Mus Txapelketa parte hartzeko aukera egongo da. Ondoren Ion Mintegiaga Oiarbideren ongietorri ekitaldia egingo dute, 19:30ean. Hitzaldi eta eskaintzen jarraian, herri afariaren txanda iritsiko da. Ibarreko plazan 250 lagun inguru elkartzeko dira. Txartelak alde zurretik erosteko gomendioa egin dute antolatzaileek.

Gauean, kontzertua eta DJ saioa antolatuko dituzte Gaztebean. Sarrera dohainik izango da eta Gozategi taldeak zabalduko du parranda. 23:30ak inguruan hasiko dira. Hauen ostean, DJ Axeri-Zaharraren emanaldia egongo da.

GUTUN@K ▶

Renfek gaizki tratatzen ditu tren erabiltzaileak

Zergatik ez du Renfek Tolosako geltokian bozgorailutik zabaltzen dituen mezuak euskaraz ematen? Legeak behartzen du, baina ez du betetzen. 1979az geroztik, Autonomia estatutuaren 6.3 artikulua honela dio: «Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko» 1982ko Euskararen Legearen 11 artikulua: «...herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako iragarkiak, mezuak eta adierazpenak euskaraz eta gaztelaniz egingo dira.»

Renfek 28 urte daramatza euskaldunak gutxiesten eta bere bezeroak gaizki tratatzen. Erabiltzaileen hizkuntza eskubide indibidualak egunero urratzen eta euskal hizkuntza komunitatea berrosatzeko eskubide kolektiboak sistematikoki zapaltzen. Tolosako geltokian, zergatik ez du Renfek bozgorailutik zabaltzen dituen oharrak euskaraz egiteko behar diren bitartekoak jartzen? Non da Jaurilaritza legea betearazteko? Jaurilaritzak eta EAJK Lizartzan erakutsi dituzten arreta eta bitartekoak Madrilgo legea betearazteko, zergatik ez euskara babestu eta garatzeko?

INAZIO AGIRRE (EAE-ANV) ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶

Zine-forum saio berri bat bihar Leidor aretoan

Vincent Minnelli zuzendariaren 'An american in Paris' filma izango da ikusgai

ERREDAKZIOA

Pasa den astean ekin zion zine-forumak denboraldi berriari. Hala, bihar saio berri bat izango da ikusgai, Leidor antzokian. Hain zuzen ere, *An American in Paris* filma aukeratu dute aste honetan. Vincent Minnelli zuzendariarena.

Bi emanaldi izango dira aukeran, 19:15ean eta 21:45ean.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

LANA

Tabernaria. Amasako Iturri-Goxo jatebean tabernaria bat behar dugu arratsaldeetarako. 943 69 12 10.

Monitorea.

Asteasuko kiroldegia Aerobic monitorea behar du. Interesatek deitu 639 96 70 75 zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean zure inguruan gertatzen diren albiste berri emateko aukera duzu. Informazio interesgarri bat baldin baduzu, atal honetan idatzi eta honen berri emango da gure egunkarian. Horretaz gain, bertan idatzitako albisteak irakurri nahi badituzu, sartu *Zeuk idatzi* atalean.

Herri afaria eta autobusa

Ion Mintegiaga Oiarbide, hilaren 29an askatuko dute. Familiak jakinarazi duenez, «goizean askatuko dutela esan diote berari kartzela bertan». Espetxe kanpoan harrera egiteko autobusa antolatuko dute Ibarreko Kultur Etxetik 03:15ean izango da. Bertara joan nahi izanez gero, Ibarreko Gaztebean eman daiteke izena, «asmao 08:00etarako Leonen (Espainia) egotea da. Ion aske uzten dutenean zer-

bait jan eta eguerdi aldera etxera itzuliko gara», adierazi dute senideek.

Ongietorri ekitaldiaren ondoren, Ibarren herri afaria egingo dute, Elkartasun Egunaren baitan. Txartelak 15 eurotan eros daitezke ohiko tokietan: Ibarren Zubiaurre, Sendi Ekintza eta Danon Txoko tabernetan. Tolosan berri, Raku eta Denak tabernetan eta azkenik, Leaburuko Ostatuan. ◀

ARESO ▶ ARDI-TXAKUR TXAPELKETA

Antonio Alustiza: «Jendeak aspaldian ikusi dudan mailarik altuena erakutsi du»

Antonio Alustiza eta 'Txiki' txakurrak seigarren postua eskuratu zuten igandean Oñatiko Santa Luzia zelaiean izan zen Nazioarteko Ardi-Txakur Txapelketan

NAIARA GARZIA

Antonio Alustiza aresoarrak eta Txiki bere txakurrak seigarren postua eskuratu zuten igandean Oñatin ospatu zen Nazioarteko Ardi-txakur Txapelketan.

Alustizak lortutako emaitza ez dela «ona» adierazi du. «Hasieran nahiko ongi hasi nintzen eta gero txakurrak berak huts egin zidan, usaitzen gelditzen zitzaidan, bestela dena ongi kontrolatuta neraman. Gero berriro ekarri eta ardiak pasa zituen, baina horrek ez zuen balio izandu, beste batzuk hobeki egin baitzuten».

Leihaketak hiru proba zituen, baina lehenengoan jada zenbait parte-hartzaile kanpoan gelditu ziren. «Probarik zailena lehenengoan izan zen, banderena. Niri hamargarren tokatu zitzaidan. Gainera denak oso ongi hasi ziren gainera, lehenengo bostak behintzat bai. Nik ere ongi egin nuen, irtee-



Alustiza Nafarroako Txapelketan irabazitako txapelarekin. N. GARZIA

ran pixka bat kostatu zitzaidan, baina ez nuen akatsik egin. Lehenengoan ongi egiten ez baduzu, ez duzu deus egiterik». Joxe Mari Bengoa antolatzailearen ustetan «lehenengo proba zaila izandu zen eta hor txa-

kur batzuk atzean gelditu ziren, baina aurrera jarraitu zutenek maila handia eman zuten». Banderen kokapenak proba zaildu edo erraztu dezake azaldu du Bengoak. «Banderen kokapenaren arabera

proba zaila edo errazagoa izan daiteke eta igandekoa zaila izan zela nabarmen gelditu zen».

Maila altua

Igandeko txapelketa maila altukoa izan zela azpimarratu du Alustizak. «Jendea maila altuan ibili da, aspaldi ikusi dudan hoberenean». Horrelako txapelketa batean alde aurretik zeinek irabaziko duen jakitea ez da erraza, Joxe Mari Bengoaren ustetan «edozeinek» irabaz baitezake. «Bizkor oso txakur ona da eta oso erregularra, baina alde aurretik zeinek irabaziko zuen esatea ez zen erraza, banekien txakur onak heldu zirela. Esate baterako, Frantziako txapelduna laugarren gelditu zen banderetan oso ongi moldatu ez zelako».

Igandekoarekin Bizkor-ek lortzen duen laugarren txapela da, «hiru jarraian, eta bat lehenago irabazi zuen», dio Alusti-

zak. «Aurten Bizkor Araban hirugarren gelditu zen eta zahar-tu zela pentsatu genuen, baina oso txakur ona da, han baziren beste txakur gehiago onak baina Bizkor-ek berea erakutsi du. Hori bai, 8 urte dauzka eta hortik aurrera gora baino behera segurua egingo du, beste-ek bezalaxe».

Joxe Mari Bengoa igandeko emaitzen inguruan mintzatu da. «Lehenengo biak paretsu gelditu ziren, bigarrena hirugarren ariketan hobeto moldatu zen lehenengo baino, lehenengo ardi batek hanka egin baitzion. Iparraldekoak, berriz, apur bat atzerago gelditu ziren, maila altua daukate baina banderekin ez zuten asmatu».

Txapelketa hau amaitu ondoren, datorren urtera arte artzainek ez dute beste txapelketarik izanen, baina Antonio Alustiza datorren igandean Laukizen izanen da, erakustaldi batean. «Bost bat artzain bilduko gara».

TXAPELKETA ▶

SAILKAPENA

1. Joxemari Jauregi eta Bizkor.
2. Fidel Alonso eta Aurki.
3. Pierre Pomies eta Usso.
4. Pascal Cacheus eta Scott.
5. Xabier Urien eta Txiki.
6. Antonio Alustiza eta Txiki.
7. Kepa Ardanaga eta Izar.
8. Jose Maria Pleguezuelos eta Nuca.

LEITZA ▶ PILOTA

Asteburuan jokaturako finalaurrekoak eta gero, Eskuz Binakako III. Txapelketako finalistak erabaki dituzte

ERREDAKZIOA

Asteburuan Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketako finalaurrekoak jokatu zituzten Amazabal Pilotalekuan.

Norgehiagokak ostiralean eta igandean izan ziren. Ostiralean jokaturako 4 partidetan, Apezetxea eta Bolinagak Jauregi eta Pazosen aurka irabazi zuten (22-17, kadeteak), Idoate

eta Nublak Alduntzin eta Yeregiren aurka (22-8, gazteak), NARBARTETA GALARTZAK Sagastibeltza eta Agirianoaren aurka (22-8, gazteak) eta Erroizenea eta Bengoetxeak Amantegi eta

Baez Iaren aurka (22-12, nagusiak).

Igandean, berriz, bi norgehiagoka jokatu zituzten: Jaurarena eta Lanak Arrieta I.a eta Ezkurdiari irabazi zieten (22-

18, kadeteak), eta Yoldi eta Bessonartek Urtaşun eta Keralti (22-19, nagusiak).

Finalista hauek, aurreko asteburukoekin batera, datorren igandean lehiatuko dira Amazabalen. Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketaren finala izanen da. Partidak 09:00etan hasiko dira eta goiz osoan zehar pilotariak 6 mailatan lehiatuko dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Imanol Unanue Odriozola

Pertsona bera baino garrantzitsuagoa da hark uzten duena

DONOSTIA, 2007ko irailaren 25a

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 26a, asteazkena ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra Ion Mintegiagari ongietorria egitearekin batera, Elkartasun Eguna antolatu dute Ibarran. 19:30ean ongietorria egingo diote preso politikoiari. Ondoren, afaria. Txartelako ohiko lekuetan daude salgai.

Tolosa. Santa Maria parrokiako katekesian matrikula daitezke haurrak 18:00etatik 19:00etara. Katekesia urriaren 9an hasiko da, 18:00etan.

Tolosa. La Jara Zentroak bidia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era, Montanchez, Merida, Olivenza eta Almendralejo bisitatuz. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartean (675 70 76 19 zenbakia).

Tolosaldea. Datorren igandeko Alderdi Egunera Foronda-Gasteizera joateko autobusa antolatu dute. Asteasuko EAJK, 8:45ean abiatu eta 19:00etarako itzultzeko. Autobusa eta bazkaria, 20 euro. Izen-ematea, 943 691314 edo 685 751640 telefono zenbakietan. Tolosatik batzokian eman daiteke izena (943 650276).

Vilabona. Santiago Egoitzara bisita egingo dute Hirugarren Adinaren Astearen barruan, senitartekoak eta jubilatua gonbidatuz. Merienda izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Oargi mendi elkartearen irteera Bujaruelo bailarara

TOLOSA ▶ Tolosako Oargi mendi elkarateak irteera berri bat antolatu du asteburu honetarako. Pirinioetara joango dira mendizaleak, hain zuzen ere, Bujaruelo bailarara. Etzi, ostiralarekin, abiatuko dira Tolosatik. Bugarueloko aterpetxera. Bertan lo egin eta larunbatean Otal mendia (2.709 m.) igoko dute. 1.490 metroko malda du eta igoera burutzeko lau ordu eta 15 minutuko erabiltzea aurreikusten dute antolatzaileek. Igandean, berriz, Bernatuara mendia (2.715 m.) igoko dute. 1.390 metroko desnibela du honek eta lau ordu eskas beharko dituzte igotzeko. Bertan parte hartu nahi duenak izena eman dezake Oargi elkartean bertan. HITZA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

07-08 DENBORALDIA

BRUESA GBC
LECHE RIO BREOGAN

OSTIRALA

28 iraila 20:30

ILLUNBE

Harpidedunen txokoa

SAN SEBASTIEN GIPUZKOR BASKET CLUB

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK
Bruesa-GBC / Leche Rio Breogan
 saskibalo taldeen arteko partidarako
 lau sarrera pare zozketatuko ditu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara:
943 65 56 95 (Irailaren 26ra arte deitu (09:00-13:00))